

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urriaren 14an hartutako erabaki baten laburpena; 2016-2017 ikasturteko haur hezkuntzako udalaren haur eskoletan matrikulatutako haurrak dituzten familiei laguntzak emateko deialdia egiten da erabakiaren bidez

BDNS (identifikatzailea): 320813

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehen.. Onuradunak: 

2016-2017 ikasturtean udalaren haur eskoletan matrikulatutako 2 urteko haurren (2014an jaiotakoak) familiak, eskolara joateko azalpenagatik, haien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Deialdi honek arautzen du, baita ere, 2016-2017 ikasturtean zehar 0 eta 1 urte bitarteko haurrei (2015ean eta 2016an jaiotakoak) emandako laguntzak. Haur horiek udalaren gizarte-zerbitzuek artatutako familietatik datoz, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak izezko eta arrazoitutako proposamena eginda.

Bigarrena. Helburua:

Deialdi honen helburua da 2 urteko haurrek (2014an jaiotakoak) eskolara joateagatik (08:00etatik 13:00etarako ordutegian) ezarritako prezio publikoa gutxiago ordaintzea eskolaldi osoan, 2016-17 ikasturtean. Eta hori, familien diru-sarrerari lotutako sistemaren bitartez gauzatu da, laguntzetarako sistema progresiboa ezarrita, familien errenta estandarraren hainbat tarte kontuan hartuta.

Hirugarrena. Oinarriak:

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urriaren 14an egindako ohiko bilkuran onartutakoak, ALHAOn argitaratuko direnak.

Laugarrena. Zenbatekoa:

72.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Hamar egun naturalekoa da, deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baldiodunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 14an

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE